

## » TELEGRAMA

Kontzertu sorta ederra prestatu dute Elorrioko Gaztetxean herriko jaiekin bat eginenez: irailaren 8, 9 eta 10ean **Dead Bronco**, **Summum Art** eta **Niña Coyote eta Chico Tornado** entzuteko aukera **STOP** Abuztutik bisitatu daiteke Donostian **Welcome Mr. Hitchcock** erakusketa: zine zuzendari ezagunak Euskal Herrian egin zuen bisita jaso dute argazkitan: Donostia 2016ren egoitzan ikusgai **STOP Durango Reggae Jaialdia** antolatu dute Plateruenan irailaren 10ean: Kolonbiatik **Alerta Kamarada** taldea etorriko da eta Gasteiztik berriz **Kultura Roots Band STOP**

## » KONTZERTUA

## Brahms krematsua



Montse Auzmendi

### Musika Hamabostaldia

FRANKFURTEKO

IRRATIKO ORKESTRA SINFONIKOA  
ANDRA MARI ABESBATZA.

Orkestra zuzendaria: Philippe Herreweghe.

Andra Mari Abesbatzaren zuzendaria:

Andoni Sierra. Bakarlariak: Ilse Eerens (sopranoa),

Marie-Claude Chappuis (mezzoa),

Robin Tritschler (tenorea), Thomas E. Bauer

(baritonoa), Steven Isserlis (biolontxelo).

Egitaraua: Beethoven, Haydn, eta Brahmsen obrak.

Lekua: Kursaal Auditorioa.

Egunak: abuztuaren 27a eta 28a.

Aurtengo Musika Hamabostaldiak momentu onak eman dizkigu, dudarik gabe. English Baroque Soloists taldea, Genevako Antzoki Handiko Balleta, *Don Giovanni* opera... benetako saio interesgarriak izan ditugu. Orkestra handien bisitak ere izan ditugu. Budapest Festival Orkestrarekin disfrutatu genuen emandako hiru saiotan, eta Frankfurtoko Irratiko Orkestra Sinfonikoak erakutsi zuen bere maila altua. Talde hau, 1929. urtean sortua da, Alemaniako hirugarren irratiorkestra zaharrena da eta estilo guztietan dago trebatuta, nahiz eta erromantizismoan espezializatua egon. Aldi honetan, klasizismoa izan zen bi egitarauen protagonista. Emaizta, ona.

Lehenengo kontzertuan Beethoven entzun genuen. *Coriolano* oboera behar den zirrarakin iritsi zitzaigun, adoretua, aiurriduna. Jarraian, 9. *Sinfonia re minorrekoa*, op. 125. *Coral* izan zen arratsaldeko plater fuertea. Philippe Herreweghe zuzenda-

riak proposamen zertxobait "nerbiosoa" egin zuen. Agian entzuten ditugun bertsiok askoz erromantikoagoak dira, la-saiagoak, eta horrexegatik harritu gintuen Herrewegheren planteamenduak. Halere, freskoa eta diferentea iruditu zitzaidan. Andra Mari Abesbatzak taxuz egin zuen bere interpretazioa. Taldearen 50. urteurrena da, eta publikoak bereziki txalotu zuen haien lana. Bakarlariek ondo baina distirarik gabe bete zituzten beren paperak.

Hurrengo egunean, berriz izan genuen Beethoven hasiera bezala. *Etxearen sargarapena* obertura oso luzitua egin zuten. Haydnen *Biolontxelorako kontzertua*, *do maiorrekoa*, hob. VII B1 lana, berriz, nahiko triste eta higatua iritsi zitzaigun. Steven Isserlis biolontxelo jolea sona handiko musikaria da, eta teknika fina erakutsi zuen uneoro. Baina oso proiektio gutxi izan zuen haren soinua, alde batetik, eta bestetik, interpretazio laua eskaini zuen. Propina jotzerakoan ere ez gintuen konbentzitu. *El cant dels ocells* jo zuen, hain mantso, hain amaneratua, ia ezagutezina. Halere, segituan ahaztu genuen hori guztia, Brahmsen 1. *Sinfonia*, *do minorrekoa*, op. 68 lanaren txanda iritsi zenean. Zoragarria. Tempi perfektuak, fraseaketa malgua, adierazkortasuna, den-dena puntuan obra eder honen bertsio disfrutagarria emateko. Oso deigarria izan zen egurren kalitatea (ze flauta ederra!), eta sokaren leuntasuna. Herreweghek erabat asmatu zuen lan honen ikuspegiarekin. Gozoa. ■

Philippe Herreweghe  
orkestra zuzendaria.